

1. Osoko bilkuraren eskumenak. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22. artikulua arabera, eskumen hauetatik zein dagokio udaleko osoko bilkurari?

a) Bandoak ematea.

b) Udal aurrekontua onartzea.

c) Langile guztien buru gorenaz izatea.

d) Hondamendi edo ezbehar publikorik gertatuz gero, beharrezko neurriak hartzea.

2. Alkatearen eskumenak. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikulua arabera, eskumen hauetatik zein dagokio alkateari?

a) Gobernu-organoak kontrolatzea eta ikuskatzea.

b) Udal-erregelamendu organikoa onartzea.

c) Bandoak ematea.

d) Udal-ordenantzak onartzea.

3. Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 1. artikulua arabera, zein da arau horren helburu nagusia?

a) Nafarroako enplegatu publikoen diziplina-araubidea soilik arautzea.

b) Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileei aplikatu beharreko araubide juridikoa ezartzea.

c) Tokiko funtzio publikorako sarbidea soilik arautzea.

d) Funtzionarioen ordainsariak soilik arautzea.

4. Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 3.1 artikulua arabera, zerk osatuko ditu Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileak?

a) Funtzionario publikoak.

b) Behin-behineko langileak.

c) Kontratatuak diren langileak

d) Guztiak zuzenak dira.

5. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47. artikulua arabera («Erabateko deuseztasuna»), baieztapen hauetatik zein da zuzena?

- a) Akatsen bat duten administrazio-egintza guztiak erabat deusezak dira.
- b) Erabat deusezak dira Konstituzioak babesten dituen eskubide eta askatasunei kalte egiten dieten egintzak.**
- c) Epez kanpo emandako egintzak erabat deusezak dira beti.
- d) Formazko akatsak dituzten egintzak erabat deusezak izango dira beti.

6. galdera. Epeak egun baliodunetan zenbatzea. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 30. artikulua arabera («Epeak zenbatzea»), epeak egunetan adierazten direnean eta berariaz adierazten ez direnean egun naturalak direla, egun hauek direla ulertuko da:

- a) Naturalak.
- b) Baliiodunak.**
- c) Lanegunetan, astelehenetik ostiralera, tokiko jaiegunak barne.
- d) Naturalak, interesdunak kontrakoa eskatzen ez badu.

7. Epeen epemuga. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 30. artikulua arabera («Epeen zenbaketa»), epearen azken eguna baliogabea bada, epea luzatutzat joko da:

- a) Hurrengo egun naturalera arte.
- b) Hurrengo hirugarren egun baliodunera arte.
- c) Hurrengo egun baliodunera arte.**
- d) Hilabeteko azken egun baliodunera arte.

8. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen 5. artikulua arabera («Printzipio orokorrak»), jarduketa publikoak:

- a) Herritarrentzat eskuragarria eta ulergarria izatea.**
- b) Erreserbatuta egotea, berariazko baimenik izan ezean.
- c) Interes legitimoa egiaztatzen dutenek baino ez ezagutzea.
- d) Herritarrek kontrolatzeko mekanismorik ez izatea.

9. Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 5. artikulua arabera («Konfidentzialtasun-betebeharra»), konfidentzialtasun-betebeharra:

- a) Langileak erakundearekin duen lan-harremana amaitzen denean amaitzen da.
- b) Datu-kategoria berezietarako sarbidea dutenei soilik aplikatzen zaie.
- c) Tratamenduaren arduradunarekiko edo eragilearekiko harremana amaitu ondoren ere irauten badu.**

d) Enplegatu publikoei bakarrik eska dakieke.

10. Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 7. artikulua araberaz («Adingabeen adostasuna»), adingabe baten datu pertsonalen tratamendua haren baimenean oinarritu ahal izango da soilik honako kasu hauetan:

- a) Hamabi urtetik gorakoa izatea.
- b) Hamahiru urtetik gorakoa izatea.
- c) Hamalau urtetik gorakoa izatea.**
- d) Hamasei urtetik gorakoa izatea.

11. Winnicott araberaz, garapen emozional goiztiarrari honako hauei esker eusten zaio nagusiki:

- a) Haurrak bere burua berezko moduan erregulatzeko duen gaitasuna, betiere giroak oztopatzen ez badu.
- b) "Ni laguntzaile" gisa jarduten duen heldu baten presentzia, selfa integratzea ahalbidetzen duen euskarri fisiko eta emozionala eskainiz.**
- c) Estimulazio goiztiarra eta niaren heldutasuna errazten duten zentzumen-erperientzia ugarietako esposizioa.
- d) Nortasuna lehen hilabeteetatik egituratzen duten arauak eta mugak goiz barneratzea.

12. Vygotskyren teoria soziokulturalaren araberaz, Garapen Hurbileko Eremua (ZDP) honela definitzen da:

- a) Haurrak inolako laguntzarik gabe modu autonomoan egin ditzakeen zereginen multzoa, bere benetako garapen maila islatuz.
- b) Haurrak inola ere egin ezin duenaren eta errepikapenaren eta saiakuntzaren bidez soilik lor dezakeenaren arteko espazioa.
- c) Benetako garapen mailaren eta heldu baten edo pare trebeago baten bitartekaritza doituaren bidez lor daitekeen garapen maila potentzialaren arteko distantzia.**
- d) Heltze biologikoaren mende soilik dauden ikaskuntza multzoa, eta ez gizarte elkarreraginaren mende.

13. Lehenengo zikloaren izaera (LOE 12. Art., LOMLOEk aldatua). Legeak honako hau ezartzen du:

- a) Lehenengo zikloa hezitzailea da, ez asistentziala.

- b) Helburua haurren garapen fisiko, afektibo, sozial eta kognitiboan laguntzea da. Hezkuntzako esku-hartzeak globala, afektiboa eta esperientzia esanguratsuetan oinarritua izan behar du.
- c) Ingurune segurua, egonkorra eta emozionalki aberatsa bermatu behar du.
- d) Erantzun guztiak zuzenak dira.**

14. 28/2007 Foru Dekretuaren 20. artikuluan honako hau ezartzen da:

- a) Ikastetxeek autonomia izanen dute antolaketaren eta pedagogiaren eredia zehazteko, indarra duen legeriaren esparruan.
- b) Kudeaketa proiektuan ikastetxeko baliabideak (giza baliabideak eta baliabide material eta ekonomikoak) antolatu eta erabiltzeko modua adieraziko da.
- c) Ikastetxeek autonomia izanen dute pedagogía eredia ezartzeko eta Hezkuntza Departamentuak ezarriko du antolakuntza eredia
- d) a eta b zuzenak dira**

15. 61/2022 foru dekretuaren 2. Artikuluan dio:

- a) Ikastete bakoitzak autonomia pedagogikoa izango du curriculuma garatu eta horren bidez ikasleen eta hezkuntzako langileen behar desberdinei erantzuteko.
- b) Hezkuntza Departamentuak lagunduko du curriculuma garatzen proposamen pedagogiko eta material didaktikoetarako eredu irekiak egin daitezen sustatuz.
- c) Hezkuntza Departamentuak lagunduko du curriculuma garatzen proposamen pedagogiko eta material didaktikoetarako eredu irekiak egin daitezen sustatuz, horien bidez ikasleen eta hezkuntzako langileen behar desberdinei erantzuteko.**
- d) Denak dira okerrak

16. 59/2023 Foru Dekretuaren 14. Artikuluan dio:

- a) Haur Hezkuntzako lehen zikloko ebaluazioko dokumentuak honako hauek dira: Espediente pertsonala, Ikasturte bukaerako ebaluazio txostena eta Lehen zikloko amaierako ebaluazioaren txostena**
- b) Haur Hezkuntzako lehen zikloko ebaluazioko dokumentuak honako hauek dira: Espediente pertsonala, harrera prozesuko ebaluazio txostena eta ikasturte bukaerako ebaluazio txostena.
- c) Haur Hezkuntzako lehen zikloko derrigorrezko ebaluazioko dokumentuak honako hauek dira: Espediente pertsonala eta Lehen zikloko amaierako ebaluazioaren txostena.
- d) Haur Hezkuntzako lehen zikloko derrigorrezko ebaluazio dokumentuak honako hauek dira: Espediente pertsonala, Ikasturte bukaerako ebaluazio txostena eta Lehen zikloko amaierako ebaluazioaren txostena

17. 3/2019 Foru dekretua honako hauetan aplikatuko da:

- a) Titulartasun publikoko eta pribatuko haur eskolak eta ikastetxeak, edo pribatu itunduak, non ematen diren Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzak.
- b) Titulartasun publikoko eta pribatuko haur eskolak eta ikastetxeak, edo pribatu itunduak, non ematen diren Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako irakaskuntzak,
- c) Titulartasun publikoko eta pribatuko haur eskolak eta ikastetxeak, edo pribatu itunduak, non ematen diren Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako irakaskuntzak, baita hizkuntzen irakaskuntzak eta arte edo kirol ikasketak ematen dituzten ikastetxeak ere, hezkuntza arloko araudian zehaztuak, 18 urtetik beherako ikasleak hartzen dituztenak.**
- d) Haur eskola eta ikastetxe pribatuetan ez da aplikagarria.

18. Zer formulaziotik islatzen du modu doituagoan 0-3 urteko hezitzaileen funtzioa?

- a) Etengabeko behaketan oinarritutako proposamen didaktiko integral eta malguak planifikatzea, jolasa, oinarrizko zaintzak eta familiaren parte-hartzea elementu pedagogiko banaezin gisa hartuta.**
- b) Ingurune seguru eta egonkor bat sortzea lehenestea, non zaintza errutinak (elikadura, loa, higiena) garapen integralaren oinarri nagusi izango diren, denborak ahalbidetzen duenean jolas proposamenekin osatuz.
- c) Alderdi kognitiboak, motorrak, emozionalak eta sozialak orekatuko dituzten programazioak egitea, aniztasunaren arreta kanpoko espezialisten esku utzita, esku hartze tekniko zehatzagoa ziurtatzeko.
- d) Autonomia progresiboa sustatzen duten hezkuntza esperientziak diseinatzea, haur bakoitzaren garapena dokumentatzea eta hezkuntza taldearekin koordinatzea, familiekin koordinatuta, soilik hezitzaileek beharrezkotzat jotzen dutenean.

19. Zein egilek nabarmendu zuen haurrek antsietateari aurre egiteko eta atxikimendu figuratik bereizteko erabiltzen duten objektu espezifiko baten garrantzia, independentziarako trantsizioa sinbolizatzen duena?

- a) **Donald Winnicott.**
- b) Melanie Klein.
- c) Jean Piaget.
- d) Lev Vygotsky.

20. Haur Hezkuntzako hezkuntza edukiak honela egituratzen dira:

- a) Haurren esperientziaren eta garapenaren berezko eremuei dagozkien 5 arlo.
- b) Haurren esperientziaren eta garapenaren berezko eremuei dagozkien 3 arlo.**

- c) Bigarren zikloan hiru arlotan egituratzen dira, eta lehen zikloan 5 arlotan.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

21. Nola lotzen da garapen afektiboa hurren garapenaren beste alderdi batzuekin?

- a) Modu isolatuan eta garapenaren beste alderdi batzuetan eraginik gabe.
- b) Gizarte-garapenarekin bakarrik.
- c) Modu integral eta holistikoan.**
- d) Garapen sozial eta kognitiboarekin bakarrik.

22. Egungo curriculumaren arabera, ondorengo baieztapenetako zein da Haur Hezkuntzaren printzipio orokorra?

- a) Haur hezkuntza nahitaezkoa da, eta bere helburua da ikasleen garapen fisikoa, afektiboa, soziala, kognitiboa eta artistikoa bultzatzea, bai eta bizikidetzarako balio zibikoetan heztea ere.
- b) Haur hezkuntza borondatezkoa da, eta bere helburua da ikasleen garapen fisikoa, afektiboa, soziala, kognitiboa eta artistikoa bultzatzea, bai eta bizikidetzarako balio zibikoetan heztea ere.**
- c) Haur hezkuntza borondatezkoa da, eta ikasleen garapen fisiko, sozial, kognitibo eta motorrean laguntzea du helburu.
- d) Haur hezkuntza derrigorrezkoa da bigarren zikloan, eta borondatezkoa lehenengoan. Helburua da ikasleen garapen fisiko, sozial, kognitibo eta motorrean laguntzea.

23. Ekainaren 1eko 61/2022 Foru Dekretuaren arabera, hurrek gaitasunak eskuratu eta garatzeko, haur-eskolako hezkuntza-taldeak honako hauek diseinatuko ditu:

- a) Unitate didaktikoak.
- b) IKT berrikuntza-proiektuak.
- c) Ikaskuntza egoerak.**
- d) Curriculum-egokitzapenak.

24. Haur Hezkuntzako lehen zikloko egungo curriculumaren berrikuntzetako bat da curriculum arloetako edukiak honela adierazten direla:

- a) Oinarrizko gaitasunak eta deskribatzaile operatiboak.
- b) Jarrerazko, prozedurazko eta kontzeptuzko helburuak eta edukiak.
- c) Gaitasun espezifikoak, ebaluazio irizpideak eta oinarrizko jakintzak.**
- d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

25. Loczy Institutuko motrizitatearen inguruko ikerketen arabera:

- a) Haurra lehenengo eseri egiten da eta gero katuka dabil.
- b) Haurra lehenengo katuka dabil eta gero eseri egiten da.
- c) **Haur batzuk lehenengo katuka egiten dute eta gero esertzen dira eta beste batzuk aldrebes.**
- d) Erantzun guztiak okerrak dira.

26. Piklerren ikerketetatik ondorioztatu daiteke:

- a) Gorputz jarrera edo mugimendu zehatzak eskuratzeko adinak askotarikoak dira, eta haur baten aurrerapenaren erritmoa ez da konstantea bere eskurapenetan.
- b) Gorputz jarrera edo mugimendu zehatzak eskuratzeko adinak askotarikoak dira, eta haur baten aurrerapenaren erritmoa etengabea da bere eskurapenetan.
- c) Gorputz jarrera edo mugimendu garapen autonomoa esperimintatu ahal izan duten haurrek erraztasuna, harmonia, zuhurtzia eta mugimenduen segurtasuna dituzte ezaugarri.
- d) **A eta C zuzenak dira.**

27. Budapesteko Pikler-Loczy Institutuaren ikerketen arabera, haurrak oinez hasten dira;

- a) **13 hilabetetik 21 hilabetera.**
- b) 9 hilabetetik 18 hilabetera.
- c) 11 hilabetetik 20 hilabetera.
- d) 12 hilabetetik 24 hilabetera.

28. Piklerren hitzetan;

- a) **Haurrak espazio mugagabeetan gutxiago mugitzen eta jolasten dira, argi definitutakoetan baino.**
- b) Haurrak espazio mugagabeetan gehiago mugitzen eta jolasten dira argi definituetakoetan baino.
- c) Haurrak espazio mugagabeetan gehiago mugitzen dira.
- d) Haurrek espazio mugagabeetan gehiago jolasten dute.

29. Zenbat dira Lóczyren taldeak haurren bizitzari eta helduek haiekin dituzten harremanei buruz ulertzen dituen Oinarritzko Printzipioak,?

- a) 2
- b) 3
- c) 4**
- d) 5

30. Lóczyren txanda sistemaren honako onura hauetatik, zeinek islatzen du modu egokiagoan eredu horrek haurtxoaren segurtasun emozionalari nola laguntzen dion, taldearen antolaketa eta zainketen koherentzia ahaztu gabe?

a) Txanda sistemari esker, haur bakoitzak hainbat profesionalen zaintzak jasotzen ditu asteen zehar, eta horrek laguntza estilo desberdinetara ohitzea eta figura jakin batekiko mendekotasuna murriztea errazten du, aldaketen aurrean malgutasuna handituz.

b) Txandak antolatzeak haurrak zaintza uneetan zein heldu egongo den aurreratu ahal izatea errazten du, baina aurreikusgarritasun hori langileen aldizkako txandakatzearekin konbinatzen da, lotura eksklusiboegiak saihesteko.

c) Txanda sistemak bermatzen du zaintzaile kopuru txiki eta egonkor batek artatuko duela haurra, eta, horri esker, zaindua izateko moduan dauzkan ereduak ezagutuko ditu, zer gertatuko den aurreratuko du eta emozionalki segurua eta aurreikusteko modukoa den ingurune bat esperimentatuko du.

d) Txanden egiturak ziurtatzen du zaintzaile guztiek haur guztien errutinak ezagutzea, edozein profesionalak beste bat ordeztu ahal izan dezan, haurrak arreta jasotzeko moduan desberdintasun nabarmenik sumatu gabe.

31. Ondorengo baieztapenetatik zeinek deskribatzen du zehatzago funtzio sinbolikoa haurren garapenean?

a) Haurrak objektuak modu koordinatu eta eraginkorrean manipulatzeko duen gaitasuna, eskema sentensoriomotorren errepikapenari esker bere ekintzen emaitza aurreratuz.

b) Objektu, keinu edo hitz bat presente ez dagoen zerbait irudikatzeko eta erabiltzeko trebetasuna, jolas sinbolikoa, imitazioa eta hizkuntzaren agerpena ahalbidetuz.

c) Haurrak ingurunea arakatzeko duen joera, ekintza errepikakor eta zirkularren bidez, eskema motorrak finkatzeko eta kausa efektu erlazioak ulertzeko.

d) Problema praktikoak saiakuntza eta porrotaren bidez ebazteko gaitasuna, buru irudikapenetara edo barne irudietara jo beharrik gabe.

32. B. Aucouturierren arabera, ondorengo baieztapenetatik zeinek deskribatzen du modu egokiagoan haurren agresibitatearen eta indarkeriaren arteko aldea?

a) Bai agresibitatea bai indarkeria ere, adierazpen negatiboak dira, eta haurren garapen emozionala oztopa ez dezaten eragin beharra dago.

b) Agresibitatea nortasuna baieztatzeko, esploratzeko eta eraikitze beharrezkoa den bizi energia gisa ulertzen du; indarkeria, berriz, energia horrek segurtasun emozional faltagatik edo barne mugengatik gainezka egiten duenean agertzen da.

c) Bere ustez, agresibitatea indarkeria sinbolikoaren modu bat da beti, eta biak modu berean tratatu behar dira, helduaren arreta erakarri behar dela adierazten baitute.

d) Baieztatzen du indarkeria eboluzio etapa saihestezina dela, eta haurrak bulkadak deskargatu behar dituela bitartekaritzarik gabe; agresibitatea, berriz, ingurunea imitatuz ikasitako portaera da.

33. Winnicotten teoriaren arabera, ondorengo baieztapenetatik zeinek deskribatzen du zehaztasun handiagoz "ama nahikoa onak" garapen goiztiarrean duen funtzioa?

a) "Ama nahikoa ona" denak haurraren edozein frustrazio mota saihesten du, eta ingurune erabat babeslea bermatzen du, gogobetetasunari eusteko.

b) "Ama nahikoa ona" denak behar bezala erantzuten die haurraren behar guztiei, eta beti aurrea hartzen die, larritasunik edo desantolaketarik izan ez dezan.

c) "Ama nahikoa ona" da, hasierako ama-haurraren erabateko loturaren ondoren, pixkanaka frustrazio onargarri txikiak sartzen dituen, haurrari barne baliabideak eta errealitatearen zentzua garatzeko aukera ematen diotenak.

d) "Ama nahikoa ona" denak hasieratik mantentzen du distantzia emozional egonkorra, eta haurrak autonomia gara dezan laguntzen du, amaren irudiaren mende gehiegi egon gabe.

34. Winnicotten arabera, ondorengo baieztapenetatik zeinek deskribatzen du modu doituagoan trantsizio objektuaren funtzioa garapen goiztiarrean?

a) Trantsizio objektua haurrak ama-irudia ordezkatzeko erabiltzen duen baliabide bat da, banantzeari kanpoko laguntza emozionalaren beharrik gabe aurre egiteko aukera ematen diona.

b) Objektu trantsizionala helduak aukeratzen duen objektu bat da, haurraren autonomia errazteko, banantze-uneetan antsietatea murrizten duen estimulu sentsozial gisa jardunez.

c) Trantsizio objektua haurrak afektiboki asmaturiko elementu bat da, barneko eta kanpoko errealitatearen arteko tartea hartzen duena, amaren gabezia onartzen eta sinbolizazioari ekiten laguntzen diona.

d) Trantsizio objektua haurrak lotarako bakarrik erabiltzen duen objektua da, eta haren funtzio nagusia esnaldi eta atsedeen zikloak zentzumen lotura egonkorren bidez erregulatzea da.

35. Zein dira Bowlbyk garatutako atxikimenduaren teorian deskribatutako eta ondoren Ainsworthek sailkatutako atxikimendu motak?

- a) **Atxikimendu segurua, atxikimendu saihestailea, atxikimendu anbibalentea/erresistentea eta atxikimendu desantolatua.**
- b) Atxikimendu primarioa, atxikimendu sekundarioa, atxikimendu tertziarioa eta atxikimendu konpentsatzailea.
- c) Mendeko atxikimendua, atxikimendu autonomoa, atxikimendu antsietatea eta atxikimendu axolagabea.
- d) Erantzun guztiak okerrak dira.

36. Rousseuren ustetan, haurra da...

- a) Miniaturazko heldu bat, desbideraketak saihesteko zorrotz gidatu behar dena.
- b) **Berez ona den izaki bat, zeinaren garapenak barne erritmoak eta askatasuna errespetatu behar dituen.**
- c) Nagusiki helduaren imitazioz ikasten duen izaki pasiboa.
- d) Sarien eta zigorren bidez bakarrik ikasten duen subjektua.

37. Eriksonen arabera, haurren garapenaren ezaugarri nagusia...

- a) Heltze kognitiboan soilik zentratutako etapak.
- b) **Modu osasungarrian aurrera egiteko konpondu behar diren gatazka psikosozialak.**
- c) Jokabideak errefortzu bidez eskuratzea.
- d) Eskema sentsorimotorrak eraikitzea.

38. Skinnerren ustez, ikaskuntza batez ere...

- a) Ingurunearen esplorazio autonomoa.
- b) Gizarte elkarreragin esanguratsua.
- c) **Behatu daitezkeen jokabideak indartzea.**
- d) Barne gatazkek ebaztea.

39. Loris Malaguzziren pentsamenduaren arabera, ondorengo baieztapenetatik zeinek deskribatzen du zehatzago haurraren ikusmoldea eta horrek Reggio Emiliako eskoletan dituen hezkuntza inplikazioak?

- a) Haurra izaki bitxia da berez, eta sormena, batez ere, helduak aldeztatik aurretik egituratutako eta diseinatutako jarduera artistikoak proposatzen dituenen garatzen da; horrela, pixkanaka adierazpen teknikak bereganatzen direla bermatzen da.
- b) **Haurra beste batzuekin elkar eraginean ezagutza eraikitzen duen subjektu trebea da, eta helduaren zeregina da entzutea, dokumentatzea eta testuinguru**

estetiko eta erlazionalak sortzea, haurren hipotesiak proiektu partekatu bihur daitezzen.

c) Haurra ikastun autonomia da, eta giroa aztertu behar du helduaren esku hartzerik gabe, helduen presentziak "ehun lengoaien" bat bateko adierazpena oztapa baitezake.

d) Haurra ingurumen estimuluen hartzaile sentikorra da, eta, beraz, eskolaren funtzio nagusia da bere sormena aktibatuko duten material askotarikoak eta aldakorrak eskaintzea, baterako hausnarketa prozesuen beharrik gabe.

40. Ikusten badugu urtebetetik beherako haur bat kosziente dagoela, ezin duela arnasarik hartu edo arnasa hartzea zaila egiten zaiola, eztarriko trabatzearen ondorioz, 112 telefonora deitu beharko dugu, eta, gainera, hau egingo dugu:

a) Bularreko bost konpresio, burua toraxa baino beherago mantenduz, gorputz arrotzaren kanporatzea errazteko.

b) Eskapulen arteko bost zaplada eta bularreko bost konpresio, gorputz arrotzaren kanporatzea errazteko.

c) Eskapulen arteko bost zaplada eta bost konpresio toraziko, txandaka, haurren burua toraxa baino beherago mantenduz, gorputz arrotzaren kanporatzea errazteko.

d) Konpresio torazikoak larrialdi zerbitzuak iritsi arte.

41. Jean Piageten arabera, estadio sensoriomotorra normalean amaitzen da...

a) 26 hilabetetan

b) 2 urtetan.

c) 12 hilabetetan.

d) 14 hilabetetan.

42. 28/2007 Foru Dekretuak gehieneko ratioak ezartzen ditu taldeen adinaren arabera (0-1, 1-2 eta 2-3), bai eta talde mistoen adinaren arabera ere (0-2, 1-3 eta 0-3). Hauek dira, hurrenez hurren: 0-1, 1-2, 2-3 eta 0-2, 1-3 eta 0-3.

a) 8,12,16 y 8, 14, 10

b) 8, 13, 18 y 8, 15, 11

c) 8, 12, 16 y 8, 15, 11

d) 8, 13, 18 y 8, 14, 10

43. 61/2022 Foru Dekretuak, bere 9. artikuluan dio;

a) Haur Hezkuntzaren hezkuntza edukiak haurren esperientziari eta garapenari dagozkien esparruekin bat datozen arlo batzuetan antolatzen dira; haurrentzat interesa eta esanahia duten ikaskuntza proposamen globalizatuen bidez landuko dira.

b) Hezkuntza Departamentuak arauz ezarriko duenaren arabera, ikastetxeek eskola ordutegiaren zati bat curriculuma euskaraz garatzeko erabili beharko dute, A hizkuntza ereduaren kasuan, edo gaztelaniaz, D hizkuntza ereduaren kasuan.

c) Ikastetxeek eskola ordutegiaren zati bat curriculuma atzerriko hizkuntzan garatzeko erabiltzen ahalko dute

d) Denak zuzenak dira.

44. Aukera hauetako zeinek definitzen du modurik egokienean Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsala (IDU) hezkuntza testuinguruan?

a) Irakaskuntza soilik ikasteko zailtasunak daudenean egokitzea proposatzen duen eredia, banakako laguntzen eta neurri espezifiko bidez.

b) Hasieratik oztopoak kentzea bilatzen duen ikuspegia, ikasleen aldakortasunari erantzuteko inplikazio, irudikapen eta adierazpen modu ugari eskainiz, ondorengo egokitzapenen beharrik gabe.

c) Material estandarizatuak sortzea, haur guztiek modu berean ikas dezaten, aukera berdintasuna bermatuz.

d) Ikasgelako programazioa jarduera irekiekin ordezkaten duen estrategia, aurrez planifikatu gabe, ikasleen autonomia bultzatzeko.

45. 61/2022 Foru Dekretuak, bere 2. artikuluan dio:

a) Ikastetxeek proposamen pedagogiko bat jasoko dute beren hezkuntza proiektuan, eta bertan, batetik, lehen zikloaren hezkuntza izaera jasoko da, eta, bestetik, foru dekretu honen eranskinetan ezartzen den curriculuma garatu eta osatuko dute, haur bakoitzaren ezaugarri pertsonaletara eta gizarte errealitatera egokituta.

b) Ikastetxeek proposamen pedagogiko bat jasoko dute beren hezkuntza proiektuan, eta bertan, batetik, bi zikloen hezkuntza izaera jasoko da, eta, bestetik, foru dekretu honen eranskinetan ezartzen den curriculuma garatu eta osatuko dute, haur bakoitzaren ezaugarri pertsonaletara eta beren hezkuntza eta gizarte errealitatera egokituta.

c) Ikastetxeek proposamen pedagogiko bat jasoko dute beren hezkuntza proiektuan, eta bertan, curriculuma garatu eta osatuko dute, haur bakoitzaren ezaugarri pertsonaletara eta beren hezkuntza errealitatera egokituta.

d) Ikastetxeek proposamen pedagogiko bat jasoko dute beren hezkuntza proiektuan, eta bertan curriculuma garatu eta osatuko dute, hezkuntza eta gizarte errealitatera egokituta.

46. 61/2022 Foru dekretuak, bere 13. artikuluan dio:

a) Hezkuntza arloko esku-hartzean aintzat hartuko da ikasleen aniztasuna, eta hezkuntza jarduna haur bakoitzaren ezaugarri, behar, interes eta estilo kognitibora

moldatako da; haur bakoitzaren eskola bilakaeran eragina izan dezaketen ezaugarriak identifikatuko dira, ikasle guztien inklusio erabatekoa ziurtatzeko helburuarekin.

b) Hezkuntza Departamentuak, haurren banako desberdintasunak kontuan hartuz, zeinu-hizkuntza espainiarrak sartzen ahalko ditu bere hezkuntza eskaintzan.

c) a eta b okerrak dira.

d) **a eta b zuzenak dira.**

47. Haur hezkuntza arautzen duen Nafarroako araudiaren arabera, ondorengo baieztapen hauetatik, zeinek adierazten ditu modu egokiagoan lehen zikloan (0-3 urte) hezkuntzako esku hartzea gidatu behar duten printzipio pedagogikoak?

a) Hezkuntzako esku hartzeak oinarrizko eduki akademikoak goiz eskuratzean oinarritu behar du, eta jarduera espezifikokoak lehenetsi behar ditu, haur guztien ikaskuntza erritmo bera bermatzeko.

b) **Hezkuntzako esku hartzeak honako hauek izan behar ditu oinarri: globaltasuna, etengabeko behaketa, indibidualizazioa, lotura seguruak sortzea eta esperientzia esanguratsuak antolatzea jolasaren, zaintzaren eta ingurunearen esplorazio autonomoaren bidez.**

c) Hezkuntzako esku hartzea gutxi gora behera hiru hilean behingo proiektuen inguruan egituratu behar da batez ere, haur guztientzako jarduera berdina eskainiz.

d) Hezkuntzako esku hartzeak, errutina akademikoak erabiltzeari eman behar dio lehentasuna, ikasleak Haur Hezkuntzako bigarren ziklorako prestatzeko.

48. 3/2019 Foru Dekretuaren arabera, nutrizio hezkuntzaren erantzukizun nagusia honako hauei dagokie:

a) Ikastetxeei

b) Osasun administrazioei

c) **Familiei**

d) Sukaldaritza kolektiboko enpresei

49. Eskola orduetan egiten diren ospakizunei dagokienez:

a) **Dekretuak gomendatzen du osasungarriak ez diren elikagai jakin batzuk saihestea.**

b) Ez du inolako mugarik ezartzen

c) Debehatuta dago elikagai-ospakizun oro.

d) Urtebetetzeak bakarrik arautzen ditu.

50. Haurrak babesteko egoeretan jarduteko gidaren arabera, 18 hilabeteko haur bat haur eskolara iristen da normalean arropa zikinarekin, gorputz usain txarrarekin eta pixoihala betearekin. Zein izan behar da hezitzailearen jarduera egokiena?

- a) Foruzaingoari zuzenean jakinaraztea
- b) Haurra aldatzea eta egoera ez erregistratzea, familiarekiko harremana zaintzeko.
- c) Gorabeherak behatzea, erregistratzea eta informazioa zuzendaritzari helaraztea, dagokion esku hartzea baloratzeko.**
- d) Gainerako familiei egoeraren berri ematea.

51. Haurrak babesteko egoeretan jarduteko gidaren arabera, 3 urteko haur baten amak gurasoen artean maiz erasoak izaten direla jakinarazten badu, adingabeak:

- a) Eraso fisikoak jasotzen baditu bakarrik da biktima.
- b) Helduen arteko gatazkek ez dute eragiten
- c) Familia indarkeriaren eraginpean egoteagatik babesgabetasun egoeran egon daiteke.**
- d) Familiak eskatzen badu baino ez du behar laguntza psikologikoa.

52. 14 hilabeteko haur bat jateko gogo handiarekin iristen da egunero, eta berehala jaten du janari guztia. Gertaera hori:

- a) Nahikoa da zabarkeria berresteko.
- b) Beste datu batzuekin batera baloratu beharreko adierazlea da.**
- c) Babesgabezia berehala jakinaraztera behartzen du.
- d) garrantzizkoa da.

53. 30 hilabeteko neskato batek eskolara huts egiten du behin eta berriz, justifikaziorik gabe. Zer jarduera da egokiena?

- a) Familiarekin harremanetan jartzea eta arrazoiak baloratzea.**
- b) Adingabeari baja ematea automatikoki.
- c) Epaitegiari zuzenean jakinaraztea.
- d) Ikasturte amaierara arte itxarotea.